

2023ko apirila

TXOSTENA

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen aplikatzea

Eskola Kirola programan parte hartzen duten erakunde guztiek honako legeria hau bete behar dute:

- **8/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa (EHAA, 139 zk., 2022/07/19).**
- **8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa (BOE, 134. zk., 2021/06/05).**

8/2022 Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarri bazen ere, lanbide-kualifikazioak ez dira eskatuko 2026ko urtarrilaren 1era arte, beraz, adi egon behar gara urte horretan ikastetxeetan edo klubetan kirol-lanak egiten dituzten pertsona guztiek derrigorrezko titulazioak bete ditzaten.

Eskolaz kanpoko kirolean IGEei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeek eta IGEak berak haurrak babesteko protokolo bat prestatu behar dute.

8/2022 Legearen edukia:

- 1. artikulutik 6.era: Xedapen orokorrak.
- 7. artikulutik 11.era: Eska daitekeen lanbide, eskuduntza eta kualifikazio bakoitzaren izena.
- 12. artikulutik 18.era: Lanbide bakoitzean sartzeko eta jarduteko baldintzak.
- 19. artikulutik 23.era: Zehapen-araubidea.
- Xedapen gehigarriak (1etik 12ra): Euskara, boluntariotza, prestakuntza-plana, sexu-indarkeriaren prebentzioa, genero-ikuspegia...
- Xedapen iragankorrak (1etik 8ra): Gaikuntzak, legearen aplikazio progresiboa...
- Xedapen indargabetzailea: Maila bereko edo txikiagoko arauak.
- Azken xedapenak (1etik 3ra): Indarrean jartzea, arau-esparru erkidea eta kualifikazioak egiaztatzea.

Legearen xedea da:

- Jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbide jakin batzuetan sartzeko funtsezko alderdiak arautzea eta zein diren onartzea.
- Horietan sartzeko behar diren titulazioak edo lanbide-kualifikazioak zehaztea.
- Lanbide bakoitzari dagokion eremu funtzional espezifikoak esleitzea eta lanbidean jarduteko baldintzak ezartzea.
- Kirol-zerbitzuen erabiltzaileei zerbitzu hori praktika segurua sustatzen duten ezagutza teknikoak aplikatuz ematen zaiela zaintzea.

Laburbilduz, legearen helburua da kirolarekin lotuta dauden lanbideak arautzea, kirolariak egiten ari diren kirolean adituak diren pertsonen prestakuntza jaso dezaten. Ezin dugu onartu ezagutzarik ez duten pertsonen prestakuntza eskatzen duten funtzioak betetzea

Legean jasotako lanbideren batean diharduten eta jardueran fisikoki egon behar duten pertsona guztiek (entrenatzaileak) lehen sorospen prestakuntza ere egiaztatu beharko dute.

Legeak ez die inolako erreferentziarik egiten profesionali ematen zaien ordainsariari.

Kirolariak hiru mailatan sailkatzen dira, eta horren arabera, kualifikazio jakin bat eskatuko zaie profesionali:

- Oinarrizko maila: Eskola Kirolaren kategoriak
- Maila ertaina.
- Errendimendu handia edo maila altua.

Jarduera fisikoaren lanbideak:

- Gorputz Hezkuntzako irakaslea
- Kirol-monitorea
- Entrenatzailea: Profesionaltasun ziurtagiria edo erdi-mailako hasierako zikloa (kirol teknikaria), dagokion diziplinan.
- Kirol-zuzendaria: Eskola Kirolean, beharrezkoa izango da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako unibertsitate-titularen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioa.

Kirol entrenatzailearen eta zuzendariaren lanbideek eragiten digute IGEak antolatutako eta Bizkaiko Foru Aldundiak araututako Eskola Kirola programari.

Hauek dira eginkizunak:

- **Entrenatzailea (Legearen 9. artikulua):** Lehiaketara begira dauden kirolarien eta taldeen entrenamendua, hautaketa, aholkularitza, plangintza, programazioa, zuzendaritza, gidaritza, kontrola, ebaluazioa, jarraipena eta antzeko funtzioak.
- **Kirol zuzendaria (Legearen 10. artikulua):** Zuzendaritza teknikoarekin, programazioarekin, plangintzarekin, koordinazioarekin, orientazioarekin, kontrolarekin, gainbegiratzearekin eta ebaluazioarekin lotutako jarduerak egitea edo zerbitzuak eskaintzea. Ez da beharrezkoa zuzendariaren presentzia fisikoa kirol-jardueretan.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroa sortuko du (oraindik ez da sortu), publikoa izango dena. Lanbide jarduera egin nahi duten eta Legean eskatzen den kualifikazioa duten profesional guztiek Erregistro honetan izena eman beharko dute eta erantzukizunpeko adierazpen baten bidez honako datuak adierazi: izen -abizenak, beren titulazioaren edo lanbide-kualifikazioaren datuak eta bete beharreko lanbideari buruzkoak.

Horrela, pertsonen zerrenda eta haien kualifikazioak kontsultatu ahal izango dira.

2022ko ekainera arte kirol-lanetan aritu diren pertsonen egoerara egokitzeko aukera emango diete, beren akreditazioak baliozkotuz edo gaituz.

FORU ALDUNDIAREN ESKOLA KIROLERAKO PLANA - BFA JARDUNALDIA (2023ko martxoak 30) Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren Arloak antolatutako jardunaldia

Aldundiak Legea egokitzeko plan progresibo bat aurkeztu zuen, eskola-kirolean egiten dugun jarduera mota kontuan hartuta:

A kirol taldea: Urpeko jarduerak, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, txirrindularitza, kirol egokitua, aire-kirolak, neguko kirolak, eskrima, gimnasia, futbola b, golfa, hipika, judoa, karatea, borroka, igeriketa, padela, arrantza, piraguismoa, surfa, taekwondo, tenisa, mahai-tenisa, arku-tiroa, triatloia eta bela.

B kirol taldea: Xakea, atletismoa, boxeoa, futbola (gainerako lehiaketak), hockeya, euskal joko eta kirolak, mendia, irristaketa, pilota, arrauna, errugbia, boleibola eta hondartzako boleibola.

Bi talde horietarako kualifikazio-eskakizuna malguagoa izango da eta pixkanaka, 2026ko urtarrilera arte, egingo da.

Datorren denboralditik 2026-27 denboraldira arte, hau da prestakuntza exijitzeko Aldundiko plana.

Kirol bakarreko erakundeak

Entrenatzaileak.

- 24-25 A kirol-taldeko entrenatzaileek MADE titulazioa izan beharko dute (Eskola Kiroleko Monitore Laguntzailea).
- 25-26 B kirol-taldeko entrenatzaileek MADE titulazioa egiaztatu beharko dute.
- 26-27 1. maila osoa - Erdi-mailako hasierako ikastaroa eta antzekoak.

Kirol zuzendariak.

- 24-25 I. maila – Erdi-mailako hasierako ikastaroa eta antzekoak
- 25-26 maila 3 – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
- 26-27, 3. Maila – Kirol-gradua, kirol-espezialitatearekin

Kirol anitzeko erakundeak

Entrenatzaileak

- 24-25 A kirol-taldeko entrenatzaileek MADE titulazioa izan beharko dute (Eskola Kiroleko Monitore Laguntzailea).
- 25-26 B kirol-taldeko entrenatzaileek MADE titulazioa egiaztatu beharko dute.
- 26-27 1. maila osoa - Erdi-mailako hasierako ikastaroa eta antzekoak.

Kirol-zuzendariak

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako titulua edo Lehen Hezkuntzako gradua, Gorputz Hezkuntzako espezialitatearekin.
- 25-26 A taldearentzat
- 26-27 B taldearentzat

PRESTAKUNTZA. MADE TITULUA

Online ikastaroak:

BFA: <https://gazteak.bizkaia.eus/eu/-/eskola-kiroleko-monitore-laguntzailearen-ikastaroa>

ASFEDEBI: <https://www.asfedebi.eus/es/noticias/3684-kurtso%20ofiziala-de-monitore-auxiliar-de-kirola-eskola-7-deialdia>

Ikastaroaren kostua 60 € ingurukoa izaten da. Aldundiaren gutxienerako dirulaguntza amaitutako ikasturte bakoitzeko: % 60 (eta kasu jakin batzuetan % 90 arte).